

Arartekoaren 2014R-2040-13 ebazpena, 2014ko ekainaren 9koa. Horren bidez, Santurtziko Udalari gomendatzen zaio trafikoko araudia hausteagatiko zigor bat ondorioz gabe utz dezala eta hori eragin zuen salaketaren zenbait alderdi argitu ditzala (zigortzeko espedientearen zk.: ...).

Aurrekariak

1. (...)ek erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen udalak zigorra ezarri ziolako Udaltzaingoko agente batek haren ibilgailuaren kontra (matrikula: ...) aurkeztu zuen salaketaren ondorioz izapidetutako prozeduran (zigortzeko prozeduraren zk.: ...). Arrazoa hauxe da: *“estacionar en zona señalizada para uso exclusivo de minusválidos”*; Doctor Fleming kaleko 16. zenbakian egin zuen hori.

Kexagileak adierazi zigun ez zegoela ados zigorrarekin; izan ere, azaldu zigunez, haren ibilgailua ez zegoen toki horretan aparkatuta salaketa egin zenean, Doctor Ferrán kaleko 16. zenbakiaren parean baizik, haren bizilekutik hurbil baitago.

Haren iritziz, haren ibilgailua Doctor Fleming kaleko 16. zenbakian ezgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako plaza batean aparkatuta ez zegoela egiaztatzen duen begi-bistako froga hauxe da: toki horretan ez zegoela horrelako plazarik. Esan zigun Doctor Ferrán kaleko 16. zenbakiaren parean bazegoela ezgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako aparkaleku-plaza bat; kale horretan bizi zen eta, nabarmendu zuenez, hortxe zegoen aparkatuta haren autoa.

Era berean, kexan azpimarratu zen kexagileak berak, salaketaren berri izan zuenean, udalari jakinarazi ziola ibilgailua non zegoen aparkatuta. Hala eta guztiz ere, administrazio horrek ez zuen zuzendu interesdunaren aburuz polizia-agenteak datu horri lotuta salaketan egin zuen akatsa, eta prozedura izapidetzen jarraitu zuen hori gertatu izan ez balitz bezala.

Kexagileak komunikatu zigun udalaren aurrean aipatutako inguruabarrak alegatu zituela eta agenteak arau-haustea kokatu zuen tokiko argazkiak ere eman zituela; argazkiek erakutsi zuten toki horretan ez zegoela erreserbatutako plazarik. Dena den, udalak aipatutako alegazioak eta froga alboratu zituen, salaketaren egiazkotasun ustean eskuarki oinarritu zen formula estandarizatu bat baliatuz.

Interesdunak uste zuen, haren alegazioak ikusita, udalak toki horretan erreserbatutako plaza zegoen ala ez egiaztatu behar zuela; izan ere, egitate objektibo bat zenez, erraz egiazta zitekeen. Gainera, egia zela frogatuz gero, horrek salaketaren egiazkotasun ustean eragina edukiko zukeen eta hori indargabetuko zukeen, baita zigorra eragin zuen arau-haustearen froga ere.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ostean, Santurtziko Udalera jo genuen gaiari buruzko informazioa eman ziezagun.

Gure eskaerari erantzunez, udalak jakinarazi zigun agente salatzaileak berretsi egin zuela salaketaren tokia Doctor Fleming kaleko 16. zenbakia izan zela.





Honela adierazi zuen: *"aunque la señal de lugar reservado a minusválidos se encuentra un poco más adelante del número 16, ese portal es el más cercano al lugar donde el vehículo fue sancionado"*.

Era berean, udalak honakoa esan zigun: *"al objeto de cumplir el requisito de indicar en la denuncia el lugar donde se comete la infracción de tráfico, al no existir nº de portal en la calle, (se entiende referido al punto exacto donde se comete la infracción) el agente denunciante utilizó el que está más próximo, con el objeto de identificar el lugar de la forma más adecuada"*. Y añadió que *"hechas las comprobaciones oportunas, se constata que en la calle Doctor Fleming de Santurtzi, a unos 50 metros aproximadamente del portal nº 16, y entre los portales nº 16 y 18, existe una plaza de estacionamiento para uso exclusivo de minusválidos, la cual está perfectamente señalizada con marcas viales y señal vertical"*.

- Udalak helarazi zigun informazioa eta dokumentazioa aztertutakoan, ondorioztatu genuen, hurrengo atalean jaso ditugun gogoetak oinarri hartuta, interesduna zigortzea eragin zuen egitatea benetan gertatu zela zalantzan jartzeko arrazoiak zeudela. Izan ere, gure iritziz, udalak eman zizkigun azalpenek ez zuten justifikatu zergatik zehaztu zuen agenteak arau-haustearen tokia aipatutako kaleko 16. zenbakia zela.

Halaber, uste genuen zalantza hori bateraezina zela salatutako egitatea behar bezala frogatuta dagoela pentsatu ahal izateko eta dagokion zigorra errugabetasun usterako eskubidea urratu gabe ezarri ahal izateko behar den ziurtasunarekin. Hori dela-eta, zigorra indargabetu behar zen.

Balorazio hori helarazi genion udalari, aipatutako zentzuan jarduteko prest ote zegoen jakinaraz ziezagun.

- Era berean, kexan erakunde honek urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean ("Poliziaren jardura eta praktiketako berme sistemari buruzkoa") aztertu duen kontu bat aipatu zen, alegia, balitekeela arau-hauste administratiboengatik salaketek gertatutakoa zintzoki ez islatzea, eragiten dituzten egitatei dagokienez (II.2.3.).

Kexak esandakoa eta gomendio horretan posibilitate horri lotuta eta agenteen ustezko jardun desegokien ikerketari lotuta (II.1.1. eta II.2.3. atala) adierazi duguna aintzat harturik, pentsatu genuen udalak behar bezala ikertu eta argitu behar zuela agente salatzaileak salatu zuen arau-haustea gertatu zen kalearen izena salaketan txarto idatzi ote zuen (kexagilearen ustez horixe gertatu baitzen). Halaber, gure aburuz, udalak ikertu eta argitu behar zuen zergatik adierazi zuen berresteko txostenean Doctor Fleming kaleko 16. zenbakia salaketan aipatu zuen erreserbatutako aparkaleku-plazatik hurbilen zegoena zela.

Era berean, esan genion gure iritziz polizia-ibilgailuetako kokapena kontrolatzeko elementuak edo agenteak polizia-egoitzatik kanpo kontrolatzeko beste baliabide batzuk erabilgarriak izan zitezkeela helburu hori lotze aldera, salaketa jarri zen orduan agente hori zehazki non zegoen jakiteko aukera ematen baitzuten.





5. Gure balorazioari eskaini dion erantzunean, udalak zigorra indargabetzearen aurka dagoela esan du. Bere irizpideak oinarritzeko erabili dituen argudioak, funtsean, bat datoz jadanik ezagutarazi zizkigunekin eta balorazioa egiteko kontuan izan genituenekin.

Udalak nabarmendu du ezgaitasunen bat duten pertsonentzako aparkaleku-plaza, salaketak aipatu duena, Doctor Fleming kaleko 16. eta 18. zenbakien artean dagoela.

Gainera, agente salatzaileak Doctor Fleming kaleko 16. zenbakia arau-haustearen tokitik hurbilen zegoena ulertu zuela justifikatzeko, esan du salaketaren unean ikusi ahal izan zuen zenbakia izan zela.

Gaineratu du trafikoko araudiak ez duela behartzen, arau-haustearen tokia zehazteko, salaketan kalearen izena eta zenbakia idaztera.

Azkenik, jakinarazi digu Udaltzaingoak salaketetan toki hori zehazteko erabiltzen duen irizpidea eta nola erabili zen kexaren kasuan. Zehazki, honakoa adierazi du: *"Allá donde exista calle y nº para establecer el lugar de la infracción, esta será la opción prioritaria de utilización. En el caso de que el lugar de la infracción esté situado entre dos números de calle, como es el caso, se utilizará como nº de calle el primero, que en el presente caso se corresponde con el nº 16 de la calle Dr. Fleming"*.

6. Dena den, udalak ez digu esan kexa ikertu duen eta aztertzeke kontuan hartu duen balitekeela arau-hauste administratiboengatik salaketek gertatutakoa zintzoki ez islatzea, eragiten dituzten egitateei dagokienez, urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean (II.2.3. atala) aipatu dugunez.

Kontu horri lotuta honakoa baino ez du adierazi: *"Respecto a la existencia de otros elementos de control de los agentes fuera de sede policial que permitan conocer donde estaba el agente denunciante a la hora que se produjo la denuncia, sentimos informar que en la actualidad no existen dichos elementos de control"*.

Gogoetak

1. Aurrekarietan agerian jarri dugun moduan, kexagileak zalantzan jarri duena da haren ibilgailua salaketak aipatu duen ezgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako plazan aparkatuta zegoela behar bezala frogatuta egotea. Gogora dezagun haren oinarria dela Doctor Fleming kaleko 16. zenbakian (hortxe kokatu baitzuen salatu zuen agenteak arau-haustea) ez dagoela ezgaitasunen bat duten pertsonentzako aparkaleku-plazarik eta ibilgailua ez zegoela kale horretan aparkatuta, Doctor Ferrán kaleko zenbaki berean baizik (bertan bizi baita).

Udalaren aburuz, egiaztatuta dago plaza hori existitu egiten dela eta zenbaki horren eta 18. zenbakiaren artean kokatuta dagoela. Bestalde, agente



salatzaileak, arau-haustearen lekua kokatzeko 16. zenbakia erabili duela justifikatze aldera, argudiatu du plazatik hurbilen zegoena zela.

Hala ere, kexan nabarmendu da Doctor Fleming kaleko 16. zenbakia ez dela ezgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako plazatik hurbilen dagoen zenbakia (udalak emandako azalpenei jarraiki salaketak hizpide duen plazari buruz ari gara), haren parean dauden zenbakiak, 17., 19. eta 21. zenbakiak hain zuzen ere, plaza horretatik hurbilago daude eta.

Erakunde honek bildu dituen datuekin bat eginez, egia da aipatutako plaza 16. eta 18. zenbakien artean dagoela, udalak adierazi duen bezala, baina 17., 19. eta 21. zenbakien parean ere badago, kexan aipatu den moduan.

Datu horiek aintzat hartuta, 16. eta 18. zenbakiak eta erreserbatutako aparkaleku-plaza kaleko alde berean daude, baina ez daude aipatutako plaza kokatuta dagoen etxe-uhartean. Azken etxe-uharte horren mugak hauexek dira, Doctor Fleming kalearekiko perpendikularki: Ramon y Cajal kalea eta Cuesta de las Viñas. 16. zenbakia Ramon y Cajal kalea baino lehen kokatuta dago eta 18. zenbakia Cuesta de las Viñas kalearen ostean dago, zenbakien goranzko noranzkoari jarraituz.

Datu berberen arabera, egia da Doctor Fleming kaleko 17., 19. eta 21. zenbakiak agente salatzaileak dioenez salaketak hizpide duen erreserbatutako plazaren pare-parean daudela, batez ere lehen biak. Zenbaki horien ostean, 16. zenbakiranzko norabidean, kaleko alde berean eta etxe-uharte berean, 13. eta 15. zenbakiak daude.

Datu horiei jarraiki, erakunde honen iritziz, begi-bistakoa dirudi erreserbatutako plazatik hurbilen dauden zenbakiak 17., 19. eta 21. zenbakiak direla, 16. zenbakia ez dela hurbilen dagoena eta, are gehiago, 13. eta 15. zenbakiak 16. zenbakia baino hurbilago daudela plazatik. Gainera, gure ustez, 16. zenbakia ez da arau-haustearen tokia zehazteko erreferentzia zuzen bat, eta ez bakarrik arrazoi horrengatik —hurbilena ez dela—; izan ere, horrez gain, Doctor Fleming kaleko bidegune hori ez dago 16. zenbakia dagoen etxe-uharte berean.

Datu horiek kontuan izanik, uste dugu salaketa jarri zuen agenteak berresteko txostenean arau-haustea Doctor Fleming kaleko 16. zenbakian kokatu zuela justifikatzeko eman zituen azalpenak ez datozela bat errealitatearekin, hori ez baita salaketaren arabera kexagileak aparkatu zuen erreserbatutako plazatik hurbilen dagoen zenbakia.

Gure aburuz, aipatutako azalpenak eta udalak helarazi dizkigunak ez dira baliagarriak agenteak salatu zuen egitatearen egiazkotasunaren inguruan kexagileak mahai gainean jarri dituen zalantzak argitzeko. Halaber, ez dute justifikatzen arau-haustearen tokia zehazteko erreferentzia gisa 16. zenbakia hautatu izana. Azalpen horiek ez dituzte argitzen erakunde honek kexaren balorazioan udalari aurreko arrazoiketara oinarrituta adierazi zizkion zalantzak. Laburbilduz, ez dute baloratzen aparkaleku-plazatik hurbilen dauden zenbakiak 17., 19. eta 21. zenbakiak direla, 16. eta 18. zenbakiak eta erreserbatutako plaza etxe-uharte desberdinetan daudela eta 13. eta 15. zenbakiak ere 16. zenbakia baino hurbilago daudela plazatik.





Udalak, agenteak Doctor Fleming kaleko 16. zenbakia erreserbatutako plazatik hurbilen zegoena ulertu zuela justifikatzeko, esan du salaketaren egin zuenean ikusi ahal izan zuen zenbakia izan zela.

Hala ere, uste dugu azalpen horrek ere ez dituela kexak adierazi dituen zalantzak argitzen.

Agenteak egin zuen salaketaren arrazoia da, esan den bezala, kexagilearen ibilgailua ezgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako plaza batean bidegabeki aparkatuta zegoela. Ondorioz, alde aurretik onartu behar da agenteak ibilgailuaren ondoan egon behar zuela han aparkatzea ahalbidetuko ziokeen txartela ez zeukala antzeman ahal izateko. Hori dela-eta, erakunde honek ezin du ulertu, beste azalpenik eman ez digutenez, agenteak toki horretatik ikusi zuen kaleko zenbakia 16. zenbakia izatea —izan ere, adierazi dugunez, zenbaki hori aurreko edo ondorengo etxe-uhartean dago, agentea mugitu zen noranzkoaren arabera—, 17., 19. eta 21. zenbakiak ez ikustea —orobat agerian jarri dugunez, plazaren aurrean baitaude— eta 13. eta 15. zenbakiak ere ez ikustea, horiek ere 16. zenbakiaren eta erreserbatutako plazaren artean dauden arren.

Are ulertezinagoa egiten zaigu agenteak 16. zenbakia arau-haustearen tokitik ikustea; izan ere, berresteko txosten horretan esan zuenaren arabera, zenbaki horretatik erreserbatutako plazarantz zihoan (plaza *"un poco más adelante del número 16"* zegoela adierazi zuen).

Gure aburuz, udalak bere erantzunean eman digun argudioa, alegia, trafikoko araudiak ez duela eskatzen salaketan arau-haustea kokatzeko kalearen izena eta zenbakia jaso daitezela, ez da garrantzitsua kexaren ikuspuntutik.

Gogorarazi nahi dugu kexan mahai gainean jarri dena ez dela salaketan datu hori jasotzeko legezko betebeharra dagoen ala ez; aitzitik, azaldu da arau-haustea ezin izan zela salaketa kokatu zen lekuan egin, eta hori zeharo kontu desberdin bat da.

Bestalde, ezin gara ados egon udalak egin duen balorazioarekin; izan ere, udalak uste du agentea arau-haustea kale bateko bi zenbakiren artean gertatzen denean hori kokatzeko Udaltzaingoak erabiltzen dituen irizpideetara egokitu zela. Lehen aipatu ditugun arrazoiak direla-eta, gure aburuz, irizpide hori aplikatuz gero agenteak 17., 19. edo 21. zenbakien artean aukeratu beharko zukeen, batez ere azken bien artean, arau-haustearen tokiaren parean kokatutakoak baitziren; hala ere, ez zukeen 16. eta 18. zenbakien artean hautatu behar, erreserbatutako plazaren kalearen alde berean egon arren plazaren etxe-uharte berean ez baitzeuden.

Gure ikuspuntutik, aurreko gogoetak, interesdunaren arabera haren ibilgailua aparkatuta zegoen kalearen izenaren zati bat eta zenbakia salaketan jasotakoekin bat etortzea, kexagilea azken kale horretan bititza eta salaketa goizeko 1:05ean egitea salaketa eragin zuen egitatea benetan gertatu zen zalantzan jartzeko arrazoiak dira. Zalantza hori bateraezina da salatutako egitatea behar bezala frogatuta dagoela pentsatu ahal izateko eta dagokion



zigorra errugabetasun usterako konstituzio-eskubidea (EKren 24. artikulua) urratu gabe ezarri ahal izateko behar den ziurtasunarekin.

Hori dela-eta, uste dugu zigorra deuseza dela eta horregatik indargabetu egin behar dela [azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1.a) artikulua].

2. Urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean ("Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa"), Arartekoak kexan aipatu zen kontu bat ohartarazi du, alegia, balitekeela arau-hauste administratiboengatik salaketek gertatutakoa ez islatzea, eragiten dituzten egitateei dagokienez (II.2.3.).

Gomendio horretan agerian jarri dugu poliziaren arduradunek ikerketako barne-prozedura bati hasiera eman behar diotela agenteen ustezko jardun okerren inguruan jasotzen dituzten kexak direla-eta, gertatutakoa ikertu, jarduera horiek bide egokitik joan ote ziren egiaztatu eta, hala badagokio, neurri egokiak hartzeko. Era berean, azpimarratu dugu ikerketak inpartziala izan behar duela eta haren edukiak egokia eta nahikoa izan behar duela gertakariak argitu ahal izateko (II.1.1 atala).

Aurrekarietan agerian jarri dugu udalak ez digula jakinarazi kexaren inguruan honakoa ikertu duen: agente salatzaileak salatu zuen arau-haustea gertatu zen kalearen izena salaketan txarto idatzi ote zuen (kexagilearen ustez horixe gertatu baitzen). Halaber, ez digu esan beste alderdi hau ikertu duen: zergatik idatzi zuen agenteak berresteko txostenean Doctor Fleming kaleko 16. zenbakia salaketak aipatu zuen erreserbatutako aparkaleku-plazatik hurbilen zegoena zela (gure aburuz, hori ere argitu behar zuen).

Aurrekarietan adierazi dugunez, kontu horri dagokionez esan duen bakarra da ez dauzkala gure balorazioan aipatu ditugun zenbait kontrol-elementu. Hain zuzen, honakoa nabarmendu du: "*Respecto a la existencia de otros elementos de control de los agentes fuera de sede policial que permitan conocer donde estaba el agente denunciante a la hora que se produjo la denuncia, sentimos informar que en la actualidad no existen dichos elementos de control*".

Lehen orobat agerian jarri dugunez, uste genuen elementu horien egiaztapenak, agente salatzaileak zirkulatzen zuen ibilgailuaren kokapena kontrolatzeko elementuekin batera, adibidez egitate eztabaidagarriaren ikerketa argitzen lagunduko zutela.

Dena den, udalak ez digu ezer esan kokapena kontrolatzeko elementuei buruz.

Era berean, udalak ez digu jakinarazi salaketa aztertzeko gomendioan nabarmendu genuen aukera kontuan izan ote duen, hau da, balitekeela salaketaren edukiak ez islatzea benetan gertatutakoa.

Horren inguruko informazio faltak —ez baita justifikatu eta gure iritziz ez baitago justifikatuta— ondorioztarazten digu udalak ez dituela aipatutako ikerketa eta analisisa egin.





Gure ustez, udalak ibilgailuak kokatzekoez bestelako kontrol-elementurik ez edukitzearen inguruan helarazi dugun informazioak ezin du justifikatu ikerketa ez egitea eta agentearen jardunaren zulentasunari buruz adierazi ditugun zalantza guztiak ez argitzea. Era berean, horrek ezin du galarazi salaketa aipatu dugun ikuspuntutik aztertzea.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, gomendio hau egiten diogu Santurtziko Udalari:

GOMENDIOA

(...)i (...) zenbakia duen prozeduran ezarri zion zigorra indargabetu dezala (zigortzeko arrazoia Doctor Fleming kaleko 16. zenbakian hau egitea izan zen: "*estacionar en zona señalizada para uso exclusivo de minusválidos*").

Ikertu eta argitu dezala agente salatzaileak arau-haustea gertatu zen kalearen izena txarto jaso ote zuen eta zergatik idatzi zuen berresteko txostenean Doctor Fleming kaleko 16. zenbakia udalaren arabera salaketak aipatu zuen erreserbatutako aparkaleku-plazatik hurbilen zegoena zela.